BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

6030

EBAZPENA, 2011ko urriaren 19koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, euskal etxeentzako diru-laguntzen 2011ko deialdian Uruguaiko Euskal Erakundeen Federazioari (FIVU) IV. kapitulurako esleitutako diru-laguntzaren zati bati egindako ukoa onartzen duena eta ordezko euskal etxeari esleitzen diona.

Lehendakaritzaren idazkari nagusiaren 2011ko irailaren 14ko Ebazpenaren bitartez, 29.876 euroko dirulaguntza esleitu zitzaion Uruguaiko Euskal Erakundeen Federazioari (FIVU), IV. kapitulurako, ohiko gastuei eta jarduerei buruzko kapitulurako, hain zuzen.

2011ko urriaren 11n Uruguaiko Euskal Erakundeen Federazioak (FIVU) «Música Día del Euskera» aurkeztutako proiektua burutzeko esleitutako diru-laguntzari uko egiteko idazkia aurkeztu zuen Lehendakaritzan, eta diru-laguntzak kudeatzen dituen organoak 14.214 euroko balioa ezarri dio uko egiteari, zenbatekoak berriro kalkulatu ondoren.

Diru-laguntza horiek arautzen dituen martxoaren 18ko 50/2008 Dekretuaren 12.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, 2011ko irailaren 14 Ebazpen horrek ordezkoen zerrenda bat jasotzen du IV. kapituluko diru-laguntzei uko egiten zaienerako eta zerrenda lehenengo tokian Paueko (Frantzia) Lagunt eta Maita euskal etxea dago, 18.620 euro arteko zenbatekoarekin.

Horregatik guztiarengatik, Kanpoan diren Euskal Herritarrentzako eta Gizataldeentzako zuzendariak proposatuta, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.–. Uruguaiko Euskal Erakundeen Federazioari (FIVU) esleitu zitzaion diru-laguntzaren zati bati egindako ukoa onartzea eta diru-laguntzaren zenbatekoa 29.876 eurotik 15.662 eurora murriztea. Diru-laguntza hori euskal etxeentzako diru-laguntzen 2011ko deialdikoa da, ohiko gastuak eta jarduerak ordaintzeko.

Bigarrena.– Gainontzeko 14.214 euroak Paueko (Frantzia) Lagunt eta Maita euskal etxeari esleitzea, IV. kapituluko gastuak ordaintzezko (ohiko gastuak eta jarduerak antolatzea).

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daikioke organo berari hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 19a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
GUILLERMO ECHENIQUE GONZÁLEZ.